



*Aspertxu Asperger eta AEN Bizkaia Elkartea*

*Tfn: 944810354*

*Areeta - Getxo*

*www.aspertxu.com · info@aspertxu.com*

---

*Bizkaiko Asperger eta AEN Aspertxu elkartea, CONFAE-rekin (Espainiako Asperger konfederazioarekin) elkartuta dago eta 2014ko azaroan inauguratu zen, 2015ean bere kudeaketa administratibo guztia ofizialki burutuz.*

*Elkartearen sorreratik, Aspertxuk Asperger Sindromea duten pertsonen aintzatespena eta gizarteratzea sustatu nahi izan du, eta, horretarako, helburu horietara zuzendutako jarduera ugari burutu ditu urte hauetan.*

*2021an Aspertxuk beste urrats bat eman zuen eta bere helburuen artean Asperger Sindromea duten heldu eta nerabeak laneratzeko eta gizarteratzeko programa bat sartu zuen, arrakastaren ondoren funtzionatzen jarraitzen duena*

*Horretarako, informazio eta sentsibilizazio jardunaldi batzuk egingo dira Hezkuntza zentro, Lanbide Heziketa zentro, Unibertsitate eta enpresa ezberdinekin, eta zentro horietara bisitak egingo dira, Asperger Sindromea duten heldu eta nerabeek lan-irteerak eta gizarte-egoera desberdinak ezagutu ditzaten.*

*Horregatik, zuengana jotzen dugu, enpresa pribatu gisa, egingo ditugun jardueren berri emateko:*

- 
- 1. Sentsibilizazio jardunaldiak enpresekin, Asperger Sindromea duten langileak kontratatzeke.** Asperger Sindromean espezializatutako psikologo profesional batek eta Asperger Sindromea duen eta Aspertxun administrazioan lan egiten duen pertsona batek, 45 minutu inguruko hitzaldia emango dute, **doan**, kontratazio mota horrek dakartzan abantailen berri emateko.*
  - 2. Enpresaren instalazioak bisitatzeko aukera,** Asperger Sindromea duten pertsona talde batekin, beren ezagutzarako.*
  - 3. Haien zat berariazko tailer batzuk sortzea,** pertsona ahalduntzera bideratuak, laneratzeko. Guztira, 4 tailer izango dira eta gizarte trebetasunak landuko dira.*

---

***Hitzaldia doan jasotzeko** edo/eta Asperger Sindromea duten pertsonen **zuen enpresaren instalazioetara bisita bat antolatzeke**, jar zaitezte gurekin*

harremanetan hilabetea eta eguna zehazteko, **944 810 354** telefonoan edo [info@aspertxu.com](mailto:info@aspertxu.com) helbide elektronikoan. Goizez eta arratsaldez egin daiteke, Irailtik Abendura bitartean.

Horrez gain, **zuen enpresan lanpostu hutsen bat baldin baduzue** eta hori betetzen lagundu dezakegula uste baduzue, eskertuko genizueke lanpostu hori guri helaraztea, bilatzen ari zareten profilera egokitzen diren gure programako hautagaien kurrikuluma kudeatzeko eta zuei bidaltzeko.

---

**KORABORATZAILEAK:**



**Getxo**  
*bizi ezaza*



centro de orientación y tratamiento  
psicológico, escolar y familiar

